

## Biltegien Web Rankingaren 12. edizioa argitaratu da

2013/03/05

**Open Access** ekimena sustatzea du helburu. Web Rankinga (*Webometrics*) biltegien zerrenda bat da, gehienbat ikerketa lanak biltzen dituena. Biltegiak **Webgunearen presentzia** eta **Webgunearen eragina** neurtzen dituen adierazleen arabera sailkatu dira, oinarritzko bilatzaileetatik ateratakoak.

**RANKING WEB  
DE REPOSITARIOS**

Rankinga egiteko ondorengo adierazle kuantitatiboak erabili dituzte:

- **Tamaina (S)**. Googletik berreskuratutako orrialdeen kopurua (%10)
- **Ikuspena (V)**. Jasotako kanpoko esteken kopurua (backlinks) bider esteka horien iturburu izan diren webguneen domeinuen kopurua (referred domains). Informazioa MajesticSEO eta ahrefs guneetatik aterata (%50).
- **Fitxategi "aberatsak" (R)**. ondorengo formatuetako artxiboen kopurua, Adobe Acrobat (pdf artxiboak), MS Word (.doc, .docx), MS Powerpoint (.ppt, .pptx) eta PostScript (.ps, .eps). Informazioa Googletik atera dute (%10)
- **Scholar (Sc)**. Google Scholar datu-basea erabiliz, 2007 eta 2011 bitartean dauden artikulak kalkulatu dira (%30)

Rankingetara sar zaitezke hurrengo ataria erabiliz,

<http://repositories.webometrics.info/es>